

LANGILEAK KONTRATATZEKO HAUTAKETA-PROTOKOLOA

1. SARRERA

Protokolo honen bidez Larramendi Ikastola kooperatibako langileak kontratatzeke hautaketa-prozesua arautzen da.

*Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiako Ikastolen hitzarmenari jarraituz (II. Kapituluak, 24. Artikulua) langileen hautaketa eta kontratazioarekin loturik dauden gaietarako **Kontrataziorako Bitariko Batzordea** eratu da eta beronen ardurapean kudeatuko da protokolo hau.*

2. LAN-ESKAINZA ETA DEIALDIEN MAIZTASUNA

Larramendi Ikastolak bete gabeko irakasle postuak eta irakasle ez diren postuak betetzeko deialdia egingo du horretarako beharra dagoenean.

Deialdi horietan une horretan beharrezkoak diren gutxienekoak betetzeko irakasle eta langileen perfilak jasoko dira, baina, gainera, Larramendi Ikastolak etorkizunari begira dituen helburu eta beharrekin lotutako irakasle zein langileen perfilak ere kontuan izango dira.

Hautaketa-prozesuaren urratsak eta deialdia bera Kontrataziorako Bitariko Batzordean adostuko dira kasuan kasuko, beti ere, protokolo honetan jasotakoari jarraituz. Kontseilu Errektoreak berretsiko du hartutako erabakia.

2.1. ESKATU BEHARREKO GUTXIENEO BETEKIZUNAK/ESKAKIZUNAK

Irakasle postuak betetzeko:

- EGA (Euskararen Gaitasun Agiria) edo baliokideak diren agiriak
- HH etaparako: irakasle diplomatura, Haur Hezkuntzako berezitasunean.
- LH etaparako: irakasle diplomatura, Lehen Hezkuntzako berezitasunean.
- LHko irakasle espezialisten kasuan (gorputz hezkuntza, musika, ingelesa): irakasle diplomatura, bakoitzari dagokion espezialitatean.
- DBHko etapan eta Batxilerrean: beharra sortzen den arloko lizentziatura, edo behar horrekin bateragarria den lizentziatura eta IGZ (Irakaskuntzarako gaitasun Ziurtagiria). Lizentziatura deialdi bakoitzean zehaztuko da.
- Atzerriko hizkuntzetako irakasleen kasuan, gutxienez C1 edo baliokidea den agiria.

Irakasle ez diren postuak betetzeko:

- Teknikari, administrari eta langile kualifikatua: EGA (Euskararen Gaitasun Agiria) edo baliokideak diren agiriak (Urriaren 6ko 263/1988 Dekretua; ikus protokolo honen eranskina).
- Kualifikazio gabeko pertsonala. Ahozko euskararen ezagutza.

2.2. AURKEZTEKO EPEA

Eskaera aurkezteko epea gutxienez 7 egunekoa izango da eta gehienez 10 egunekoa.

2.3. ESKAERAK AURKEZTEKO ERA

Eskaerak aurkezteko hiru bide daude:

- a) Ikastolako idazkaritza. Kasu honetan jasotako eguneko datarekin erregistratuko da eskaera eta aurkeztu dela ziurtatzen duen egiaztagiria emango da.
- b) Internet bidez, Ikastolak deialdirako zehaztutako email helbidean. Kasu horretan, iriste-data Ikastolako ordenagailuan agertzen dena izango da.
- c) Posta ziurtatuaren bidez. Kasu honetan data Postetxeko bulegoko harreraren jarritakoa izango da.

2.4. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

Eskaeretan, curriculum vitae-an bertan aipatzen diren merituak egiaztatzen dituzten dokumentuen kopia erantsi behar dira; adibidez, lan-bizitzaren ziurtagiria, lan-kontratuak, titulazioak, ikastaroen asistentzia, etab. Eskaera Internet bidez iristen denean, dokumentazioa eskaneatuta erantsi behar da.

2.5. BAZTERTZEAK

Epe barruan eskaera egin baina eskatutako dokumentazioa erantsi gabe iristen direnei 5 eguneko epea emango zaie zuzentzeko.

Epea agortu eta zuzenketarik egin ez bada, baztertuak izango dira.

3. LAN-ESKAINZA ETA DEIALDIETAN BETE BEHARREKO PROZEDURA

3.1. HAUTAGAIEN BALORAZIOA

Bitariko Batzordeak protokolo honetako 5. puntuan adierazitako baremo eta irizpideen arabera baloratuko ditu hautagaiak.

4. ZERRENDEN KUDEAKETA

4.1. HAUTAGAIEN UKO EGITEA

Hautagai batek justifikaziorik gabe, lan-eskaintza bati uko egiten badiu, zerrendako azken postura igaroko da automatikoki. Era berean, lan-eskaintza bat egiteko berarekin harremanetan jartzea ezinezkoa izan bada hiru kasu baino gehiagotan, hautagaia zerrendako azken postura igaroko da.

Zentroko Zuzendari-kudeatzailearen esku dago hautagaiak baliaturiko arrazoia justifikatua den aztertzea, edota dokumentuen bidez justifikatzeko eskatzea.

Uko egiteko arrazoi justifikatuak gaixotasuna, lanean aritzea edo ikasten aritzea izango dira, besteak beste. Eta idatziz egiaztatzea eskatuko da.

5. BAREMOAK ETA ERABAKIA HARTZEA

5.1. BAREMOAK

OSAGIAK	IRAKASLEAK		PERTSONAL TEKNIKO ETA ADMINISTRATIBOA		BESTE LANPOSTUAK	
					PROBA PRAKTIKOA	PROBA PRAKTIKOA GABE
PROBA PRAKTIKOA • Ezagutza teorikoak • Ezagutzen erabilpena/konpetentzia • Euskararen kalitatea • IKT baliabideak	0-8 0-16 0-8 0-8	0-40	0-8 0-16 0-8 0-8	0-40	0-40 0-8 0-16 0-8 0-8	
ESKARMENTU PROFESIONALA • Etapari lotutako eskarmentua Eskatzen den lanpostuan eskarmentua • Hezkuntza orokorrean – Lana orokorrean	0-25 0-5	0-30	0-25 0-5	0-30	0-30 0-25 0-5	0-50 0-40 0-10
IKASTAROAK • Etapari lotuak - Lanari lotuak • Hezkuntza orokorrean • Beste ikastaroak	0-10 0-4 0-1	0-15	0-12 ... 0-3	0-15	0-10 0-8 ... 0-2	0-20 0-15 ... 0-5
IKASTOLA MUGIMENDUAREKIN HARREMANA		0-5		0-5	0-5	0-10
EUSKARA	-----		-----		0-8	0-13
ATZERRIKO HIZKUNTZA		0-8		0-8	0-5	0-5
MUNGIALDEAN ERROLDATUA EGOTEA		0-2		0-2	0-2	0-2
		100		100	100	100

5.2. ERABAKIA HARTZEKO FASEA

5.2.1. TALDE DINAMIKA ETA ELKARRIZKETA

Bitariko batzordeak erabakiko du puntuazio handiena lortu dutenen artetik zenbat pasako diren talde-dinamika eta elkarrizketa fasera.

5.2.2. ERABAKIA HARTZEA

Baremazioko puntuak eta talde-dinamika/elkarrizketa saioetan jasotako informazioan oinarrituz, Bitariko Batzordeko kideen artean hartuko da erabakia

5.2.3. BERDINKETA HAUSTEA

Bi hautagaiek puntuazio bera lortuko balute, listan lehentasuna zehazteko, ondorengo irizpideak erabakigarriak izango dira, ordena honetan:

a) Espediente akademikoa.

b) Familia egoera: